

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ORIOKO UDALA

Iragarkia

Behin betiko onarpena ematea Orioko salmenta ibiltaria erregulatzen duen ordenantzari.

Orioko udalbatzarrak, 2014ko abenduaren 23an egindako ezohiko bilkuran, lehen onarpena eman zion Orioko salmenta ibiltaria erregulatzen duen udal ordenantzari.

Ordenantza hori hogeita hamar laneguneko epean jarri zen jendaurrean, 2015eko urtarrilaren 27ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALAREN 16 zenbakian argitaratutako iragarkiaren bidez, eta ez zenez aurkeztu interesdunen aldetik inolako erreklamazio zein iradokizunik, Ordenantza onartutzat ematen da.

Beraz, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, iragarki honetan Eranskin gisa argitaratzen da ordenantzaren testua; testua ez da indarrean sartuko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hamabost lanegunetako epea iragan arte.

Administrazio-bidean behin betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Hala ere, aldez aurretik, udalbatzarraren aurrean aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Kasu honetan ezingo da administrazioarekiko auzietako helegiterik aurkeztu berraztertze errekurtsoa erabaki arte edota presuntziozko ezespena eman arte.

Hori guztia egoki irizten diren beste edozein errekurtso jartzeko kalterik gabe.

ERANSKINA

ORIOKO SALMENTA IBILTARIA ERREGULATZEN DUEN
ORDENANTZA

HELBURUA

1. artikulua.

Herrian salmenta ibiltaria ugaritzen ari denez eta gaur egun arautu eta kontrolatu gabeko jarduera bat denez, ordenantza hau sortu du Udalak, honako jarduerak arautzeko helburuarekin:

- Orioko ostegunetako azokako salmenta ibiltaria.
- Azoka eremuaz aparteko aldian behingo salmenta ibiltaria.

AYUNTAMIENTO DE ORIO

Anuncio

Aprobación definitiva de la de la ordenanza municipal reguladora de la venta ambulante en el municipio de Orio.

El Pleno de este Ayuntamiento, en sesión ordinaria celebrada el día 23 de diciembre de 2014, acordó aprobar inicialmente la Ordenanza municipal reguladora de la venta ambulante en el municipio de Orio.

Habiéndose sometido dicha Ordenanza al trámite de exposición pública por el plazo de treinta días hábiles mediante anuncio publicado en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 16 de fecha 27 de enero de 2015 y no habiéndose presentado por parte de los interesados reclamación ni sugerencia alguna, se tiene por aprobada definitivamente la citada Ordenanza.

En consecuencia, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, a continuación se procede a publicar como Anexo a este anuncio el texto de la citada Ordenanza, con la indicación de que no entrará en vigor hasta que se haya publicado el texto en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y haya transcurrido el plazo de quince días hábiles.

Contra el acuerdo municipal que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la publicación.

No obstante, con carácter previo, podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante el Pleno de este Ayuntamiento, en el plazo de un mes, a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta.

Todo ello sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que se estime procedente.

ANEXO

ORDENANZA REGULADORA DE LA VENTA AMBULANTE EN EL
MUNICIPIO DE ORIO

OBJETO

Artículo 1.

Visto el crecimiento de la venta ambulante en nuestro municipio y ante la falta de reglamentación y por lo tanto de control que conlleva dicho ejercicio, se crea la presente Ordenanza cuyo objetivo primordial es regular:

- La venta ambulante en el municipio de Orio en el mercado semanal habitual de los jueves.
- Venta ambulante esporádica fuera del recinto ferial.

IZAERA JURIDIKOA

2. artikulua.

Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2g eta 86.3 artikuluen arabera, Toki Entitateen eskumena da azokak eta merkatuak arautzea eta erabiltzaile eta kontsumitzaileak defendatzea.

Era berean, Jarduera Komertziala arautzen duen maiatzaren 27ko 7/1994 Legearen 15. artikuluen eta Lehen Xedapen Iragankorraren arabera, salmenta ibiltariaren jarduerak udal baimena behar du, eta eragindako udalei sei hilabeteko epea ematen zaie jarduera hori arautzeko.

Era berean, Lege horren 22.2 artikuluen arabera, udalbatzarrari dagokio ordenantza hori onartzea.

ASTEKO AZOKAKO SALMENTA IBILTARIA

3. artikulua.

Asteko azoka ostegun goizean egingo da, normalean, Herriko Plazan edo tokiko gobernu-batzarrak izendatzen duen tokian.

4. artikulua.

Azokaren ordutegia hau izango da: goizeko 07:00etatik 09:00etara instalatuko dira postuak; 09:00etatik 13:00etara egingo da produktuen salmenta; eta 13:00etatik 14:00etara erretiratuko dira postuak eta garbituko da ingurua.

5. artikulua.

Salmenta azokarako esparruaren barruan egingo da eta Udalak izendatutako tokian; debekatuta egongo da esparru horretatik kanpoko salmenta ibiltaria.

6. artikulua. Salmenta ibiltaria egiteko betebeharrak.

a) Gizarte Segurantzaren alta emanda egotea, dagokion erregimenean; nolahi ere, saltzaile ibiltariaren azken urteko lan-bizitza egiaztatuko da, iruzur posibleak saihesteko.

b) Jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda egotea, saldu nahi dituen artikuluen salmenta ibiltariari dagokion epigrafean, eta egunean egotea horren ordainketan (ordainketaren fotokopia aurkeztu beharko dute).

c) Betetzea salgai diren produktuei eta instalazioei dagokien arauak ezartzen dituzten betebeharrak higieniko-sanitarioak edo bestelakoak.

d) Udal baimena izatea.

e) Ordaintzea udal zergak edo finkatutako komertzioei horrelako salmentetarako aplikatzen zaizkien ordenantzatan aurreikusitakoak.

f) Atzerritarren kasuan kreditatu beharko dute, gainera, badutela baimena lana beren kontura egiteko, badutela bizileku-baimena, eta, azkenik, betetzen dituztela indarrean dauden legeek ezarritako bestelako betebeharrak.

g) Jarduera ekonomikoaren arriskuak estaltzen dituen erantzukizun zibileko aseguruia edukitzea.

h) Euskararen erabilerari dagokionez, jendearen bistan dauden kartel eta elementu idatzi guztiak euskaraz idatziko dira. Beste hizkuntzatan ere idatz daitezke; baina, kasu horretan, euskarari lehentasuna emango zaio.

i) Birziklatzeari dagokionez, zorrotz bete beharko dira Udalen irizpideak eta titularraren ardura izango da birziklatu dai-

NATURALEZA JURÍDICA

Artículo 2.

Conforme al artículo 25.2.g y 86.3 de la Ley 7/1985, 2 de abril, reguladora de las bases de régimen local (LBRL) es competencia en favor de las Entidades Locales la regulación de las ferias, mercados y defensa de usuarios y consumidores.

Asimismo, conforme al artículo 15 y Disposición Transitoria Primera de la Ley 7/1994 de 27 de mayo de 1994 de la actividad Comercial el ejercicio de la actividad de venta ambulante requiere de autorización municipal, concediéndose a los municipios afectados por esta actividad un plazo de 6 meses para su regulación.

Asimismo, corresponde al Pleno Municipal la aprobación de la citada ordenanza (art. 22.2-d) LBRL.

VENTA AMBULANTE EN EL MERCADO SEMANAL

Artículo 3.

El mercado semanal se celebrará habitualmente los jueves por la mañana en Herriko Plaza, o lugar que a este efecto designe la Junta de Gobierno Local.

Artículo 4.

El horario de la misma será: De 7 a 9 de la mañana instalación de puestos, de 9 a 13,00 horas, venta de productos y de 13,00 a 14,00 horas retirada y limpieza del lugar ocupado.

Artículo 5.

La venta se realizará dentro del espacio destinado al Mercado y en el lugar expresamente asignado por el Ayuntamiento quedando prohibida la venta ambulante fuera del citado recinto.

Artículo 6. Requisitos para el ejercicio de la venta ambulante.

a) Estar dado de alta en el Régimen correspondiente de la Seguridad Social, si bien se comprobará la vida laboral del último año del vendedor ambulante con el fin de evitar supuestos de fraude.

b) Estar dado de Alta en el Impuesto de Actividades Económicas, en el epígrafe correspondiente a la venta ambulante de aquellos artículos que vengán a comercializar y encontrarse al corriente en su pago (Deberán de presentar fotocopia de dicho Pago).

c) Cumplir los requisitos higiénico-sanitarios o de otra índole que establezcan las reglamentaciones específicas relativas a los productos comercializados e instalaciones.

d) Autorización Municipal.

e) Satisfacer los tributos de carácter municipal o los que se prevean para este tipo de ventas en las Ordenanzas aplicables a comercios establecidos.

f) En caso de extranjeros deberán acreditar además, estar en posesión de los correspondientes permisos de trabajo por cuenta propia, y permiso de residencia, así como cumplir cualesquiera otros requisitos que se establezcan en la legislación vigente.

g) Estar en posesión de un seguro de responsabilidad civil que cubra los riesgos de la actividad económica.

h) En lo que respecta al uso del euskera, los carteles y elementos varios expuestos a la vista del público deberán redactarse en euskera. Se podrá rotular también en otras lenguas; pero, en ese caso, se dará prioridad al euskera.

i) En lo que respecta al reciclaje, se deberán cumplir estrictamente los criterios establecidos por el Ayuntamiento y será res-

tezkeen hondakin guztiak egoki birziklatzea: papera, kartoiak, beira, organikoa, plastikoa bakoitza bere tokian utzi.

7. artikulua. Udal baimena.

Eskatzaileak udal instantzia bat aurkeztu beharko du, honako agiriekin batera:

- a) Gizarte Segurantzako alta eta kotizazioaren azken ordainagiria.
- b) Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren alta eta azken ordainagiria.
- c) Nortasun-agiriaren kopia; atzerritarren kasuan: atzerritarren identifikazio zenbakia, lana bere kontura egiteko baimena, bizileku-baimena edota bertan bizi eta lan egiteko gaitasuna frogatzen duena.
- d) Zer produktu-mota salduko den eta instalazioen deskripzioa.
- e) Udalak txartel bat emango dio salmenta ibiltarirako baimendutako pertsonari; txartel horretan baimenaren datu nagusiak jasoko dira eta saltzaileak bistako toki batean jarriko du, bezeroen eskura. Txartel horretan azaldu beharko du non jasoko diren, hala egokituz gero, kontsumitzaileen erreklamazioak. Helbide horrek agertu behar du, nolahi ere, salmentaren faktura edo egiaztagirian.
- f) Okupatuko den azalera eta postu-mota (zehaztu beharko da ibilgailutik saltzen den, saltoki mugikor batetik edo nola).

8. artikulua. Udal baimenaren ezaugarriak.

Eskaera ikusi eta agiri guztiak aztertuta, Merkataritzako batzorde informatzaileak diktamena emango du eta proposamena egingo dio alkateari, baimena emateko.

Baimena pertsonala izango da eta ezin izango zaio beste inori laga; hala ere, baimenaren titularraren unitate familiarreko kideek erabili ahal izango dute eta, baita ere, titularraren langileek, Gizarte Segurantzaren alta emanda badaude. Baimena, gehienez, urtebeterako emango da; denbora hori pasata, postua instalatzen segitu nahi duenak berriro aurkeztu beharko du eskaria eta 7. artikuluan zehaztutako dokumentazioa, Udalak markatzen dion epearen barruan.

Ez baditu eskaria eta agiriak esandako epean aurkezten, lehenetsuna galduko du eta posturik ez duten eskatzaileen zerrendara joango da.

Udalak zehaztuko du postu bakoitzak zein esparru okupatuko duen; behin bakoitzaren tokia finkatuta, toki horiek gorde egingo dira, eta maiztasun jakin batez etortzen direnek lehenetsuna izango dute noizean behin etortzen direnen aurrean.

9. artikulua. Udal baimenak berarekin dakartzen betebeharrak.

1. Tasak ordaintzea.
2. Postua titularrak ustiatzea edo, kasua balitz, haren unitate familiarreko kideek edo bere langileek, lan-kontratua badute.
3. Txartela bistan jartzea, titularraren helbide eta telefono-arekin, izan daitezkeen erreklamaziotarako.
4. Jangaien salmenta ordenantza honetako eranskinaren arabera egingo da.
5. Debekatuta dago postua toki desberdin batean jartzea. Izendatutako tokian jarri behar da.
6. Ordutegiak errespetatzea.
7. Goizaren bukaeran postua jasotzea, ingurua garbitzea eta botatzeko material guztia biltzea.

ponsabilidad del titular reciclar convenientemente todos aquellos residuos que se puedan reciclar: papel, cartón, vidrio, orgánico, plástico cada uno en su lugar correspondiente.

Artículo 7. Autorización Municipal.

El solicitante deberá presentar la instancia municipal, junto con los siguientes documentos:

- a) Alta y último recibo de ingreso de las cotizaciones a la Seguridad Social.
- b) Alta y último recibo del ingreso del Impuesto de Actividades Económicas.
- c) Fotocopia del D.N.I., N.I.E. y permiso de trabajo por cuenta propia y residencia de extranjeros/as u otra documentación que habilite para residir y trabajar.
- d) Tipo de mercadería a vender, y descripción de las instalaciones.
- e) El ayuntamiento entregará a la persona que haya autorizado para el ejercicio de la venta ambulante dentro de su término municipal una tarjeta identificativa que contendrá datos esenciales de la autorización y que estará expuesta en un lugar visible y a disposición de la clientela. Deberá figurar en la misma la dirección donde se atenderán, en su caso, las reclamaciones de las personas consumidoras. Dicha dirección deberá figurar en todo caso en la factura o comprobante de la venta.
- f) Superficie a ocupar y tipo de puesto (especificar si se trata de venta desde vehículo, puesto móvil o cualquier otro).

Artículo 8. Características de la Autorización Municipal.

Vista la solicitud y analizados cada uno de sus documentos, la Comisión informativa de comercio emitirá dictamen y propuesta a la alcaldía que concederá la licencia.

La Licencia será personal e intransferible pudiendo no obstante hacer uso de ella los/as miembros de la unidad familiar a la que pertenezca el/la titular de la autorización y los/las empleados/as del/de la titular dados de alta en la Seguridad Social. La autorización no tendrá una duración superior a un año natural, transcurrido el mismo quien desee proseguir con la instalación del puesto deberá de presentar la correspondiente solicitud y documentación junto con los documentos contemplados en el artículo 7, dentro de los plazos que al efecto fije el Ayuntamiento.

La no presentación de la solicitud y documentación dentro de los mismos supondrá la pérdida del derecho de preferencia a puesto pasando este a engrosar la lista de los solicitantes sin puesto.

El Ayuntamiento fijará las zonas a ocupar por cada puesto, que una vez fijadas se repetirán en el tiempo, dándose preferencia a los que asistan regularmente frente a los que asistan ocasionalmente.

Artículo 9. Obligaciones parejas a la Autorización municipal.

1. Pago de tasas.
2. Explotación del puesto personal por su titular, o en su caso, miembros de la unidad familiar o trabajadores por cuenta ajena dependientes del titular y con su contrato de trabajo.
3. Obligación de exponer el cartel con el domicilio del titular y teléfono a efecto de posibles reclamaciones.
4. La venta de productos alimenticios se realizará según el Anexo de esta Ordenanza.
5. Queda prohibida la colocación del puesto en lugar diferente al asignado.
6. Obligación de respetar los horarios.
7. Obligación de recoger el puesto y limpiar y recoger todo el material de desecho una vez finalizada la jornada.

8. Debekatuta dago salmenta oihuka egitea edota megafonia sistemak erabiltzea.

9. Bezeroari faktura edo erosketa-tiketa ematea, hala eskatzen badu.

10. artikulua. Postuak adjudikatzeo irizpideak.

a) Gaur egungo saltzaileen egoera normalizatuko da, orain arte okupatu dituzten postuak adjudikatuz. Hala ere, Udalak erabaki dezake horiek tokiz mugitzea, salgaiak hobeto banatzeko.

b) Behin gaur egun okupatutako espazioak adjudikatu ondoren, gainerako espazio libreak adjudikatuko dira, irizpide hauen arabera:

1. Asteko azokan orain arte eskaini ez diren produktuak eskaintzen dituztenak, betiere baimentzeko moduko produktuak badira.

2. Eskariaren antzintasuna.

Aukeratutakoak 10 eguneko epea izango du, gehienez, adjudikatu zaion postua onartzeko; batzordeak, era berean, eskaria egin eta agiriak aurkeztu zituenetik urtebete pasa bada, eskatu ahal izango dio dagozkion agiriak entregatzea 10 eguneko epean; kasu horretan, agiri horien aurkezpenak postua onartzen dela esan nahiko du eragin guztietarako.

11. artikulua. Titularitate aldaketak.

Behin baimena emanda, kasu bakarrean onartuko da titularraren aldaketa: funtsezko arrazoiengatik (titularra hil egin dela, gaixotasun luze bat duela, erretiratu egin dela) titularraren ondorengo zuzenek -edo, halakorik ez balego, guraso edo aiton-amonek- eskatzen dutelako; kasu horretan instantzia aurkeztu beharko dute, eskaria justifikatzen duten beharrezko agiri guztiak erantsiz.

12. artikulua. Baimenaren bukaera.

Baimena indarrik gabe geratuko da, Merkataritzako batzordeak alde aurretik diktaminatu eta alkateak dekretua emanda, honako kasuetan:

- Baimenaren titularrak idatziz hala eskatzen duenean.
- Postua beste bati errentan ematea edota lagatzea.
- Baimendutakoa ez den beste mota bateko produktuak saltzea.
- Udal tasak ez ordaintzea, horretarako pisuzko arrazoirik izan gabe.
- Azokako hiru saiotara segidan edota lau saiotara huts egitea (ez dira kontatuko eguraldi txar-txarreko egunak, merkataritzako jarduera garatzeko egokiak ez direnak).

Nolanahi ere, norbaitek egunen batean bere postura etorri behar ez badu (justifikatutako arrazoiengatik izanda ere), astebete lehenago jakinarazi behar dio Udalari.

b), c), d) eta e) kasuetan, baimena kendu aurretik, aukera emango zaio interesatuari azalpenak emateko, 15 eguneko epean. Salmenta ibiltariko postu baten titularra edo autonomo kolaboratzailea mediku-bajan baldin badago (ondo kreditatuta eta bi hilabetetik gorako epeaz), aukera izango du eszedentzia bat eskatzeko bajaran dagoen bitartean; eszedentzia-aldi horretan pertsona horrek ez du tasarik ordainduko eta postua gorde egingo zaio, bueltan etorri arte; bitartean, Udalak beste bati eskaini ahal izango dio postu hori.

8. Queda prohibido vender la mercancía a voces, o implantar sistema alguno de megafonía.

9. Obligación de expender factura o ticket de compra, si el/la interesado/a lo reclama.

Artículo 10. Criterios de Adjudicación de puestos.

a) Se normalizará la situación de los actuales vendedores, adjudicándoles los espacios que hasta la fecha vienen ocupando. No obstante, el Ayuntamiento podría realizar una recolocación de los mismos, con la finalidad de una mejor distribución de las mercaderías.

b) Una vez adjudicados los espacios actualmente ocupados, se procederá a la adjudicación de los espacios libres restantes conforme a los siguientes criterios:

1. Oferta de productos no ofertados hasta el momento en la feria semanal, siempre que sea posible conceder autorización para su venta.

2. Antigüedad de la solicitud.

El seleccionado dispondrá de un máximo de 10 días para aceptar el puesto que se le hubiere adjudicado, asimismo la Comisión correspondiente en el supuesto de que hubiera pasado un año desde la realización de la solicitud y entrega de la documentación podrá solicitarle que en dicho plazo de 10 días entregue los documentos precisos, la presentación de dicha documentación tendrá a todos los efectos el carácter de aceptación del puesto.

Artículo 11. Cambios de titularidad.

Una vez concedida la autorización sólo se permitirá el cambio de titular, si por causas justificadas (defunción, larga enfermedad, jubilación) lo solicitasen los descendientes directos del titular o los ascendientes directos en caso de no existir estos, para ello deberán de realizar la oportuna instancia municipal a la que añadirán los documentos que estimen oportunos y sirvan de prueba de lo alegado.

Artículo 12. Cesación de la Licencia.

La licencia quedará sin efecto, previo dictamen de la comisión informativa de comercio, por resolución de la alcaldía si se produce alguna de las circunstancias siguientes:

- Solicitud por escrito del titular de la licencia.
- Subarriendo o cesión del puesto.
- Venta de artículos de ramo distinto al consignado en la licencia.
- Impago de las tasas municipales, sin causas justificadas.
- La no asistencia a tres ferias seguidas o cuatro salteadas, no computándose la inasistencia en los casos en los que las condiciones climatológicas no sean las adecuadas para el desarrollo de la actividad comercial.

En cualquier caso, la no asistencia debidamente motivada debe de ser comunicada a este Ayuntamiento con una antelación de una semana antes de la celebración de la feria.

Previo a la adopción del acuerdo en los casos contemplados en los puntos b), e), d) y e) se dará audiencia al interesado por un plazo de 15 días. En el supuesto de que una persona titular o autónomo colaborador de un puesto de venta ambulante, se vea en una situación de baja médica debidamente acreditada y superior a dos meses, se podrá solicitar una excedencia por el tiempo que dure la baja médica acreditada y durante ese plazo esa persona interesada estará exenta del pago de las tasas y su puesto quedará reservado para cuando se reincorpore al ejercicio de la venta ambulante, de modo y manera que el ayuntamiento de orio podrá disponer del citado puesto de venta ambulante para ofrecerlo a un tercero durante el periodo que dure la baja médica acreditada.

13. artikulua. Barne-erregimena.

1. Sartzeko edo ateratzeko ordutegitik kanpo iristen denak eskuz garraiatu beharko ditu salgaiak ibilgailutik postura eta alderantziz. Ibilgailuak, behin salgaiak deskargatu eta gero, udaltzainek esandako tokietan aparkatu beharko dituzte.

2. Postuak 3 edo 6 metro luzekoak izango dira (lehendik daudenak izan ezik; horiek lehengo neurriei eutsiko diete) eta 2 metroko sakonera izango dute.

Udalak markatuko ditu postuen mugak eta zenbakiak ezarriko dizkie; titularrek ezin izango dituzte zenbaki horiek aldatu. Nolanahi ere, pertsona batek ezin izango du bi postu baino gehiago hartu.

3. Saltzaileek ezin izango dituzte okupatu, inolaz ere, hutsik geratzen diren postuak.

4. Salgai guztiak, salbuespenik gabe (ez bada pisu edo bolumen handiko gauzak direla), altueran erakutsiko dira, eta ezin izango dira, inolaz ere, lurrean jarri.

5. Debekatuta dago salgaiak postuaren mugetatik kanpo ateratzea edota publikoarentzako zonatan pasaera oztopatzea. Era berean, debekatuta dago zona horietan kartoiak edo hondakinak uztea.

6. Saltzaileen betebeharrak izango dira:

a) Bezeroen hizkuntza-eskubideak bermatzea, bai jendea-rikiko harremanetan eta bai kartelak eta prezio-zerrendak egiterakoan.

b) Udalaren aginduak betetzea.

c) Bezeroak errespetatzea.

d) Zigorpekoak izan daitekeen merkataritza-eragiketarik ez egitea.

e) Azokaren esparruaren barruan sesio, eskandalu edo gatazkak sortzea.

f) Bistako tokian bere baimenari dagokion zenbakia ezartzea.

g) Betetzea udal ordenantza honetan edo besteetan edota goragoko arauetan ezarritako betebeharrak.

7. Norbaitek kalteren bat sortzen badu espaloian, paretan, arboletan edota edozein motatako instalaziotan, konponketaren kostua ordaindu beharko du 15 eguneko gehienezko epean; bestela, dagozkion zigorrak ordaindu beharko ditu eta Udalak espedientea hasiko du, kalteen ordaina bide exekutibotik behartzeko.

8. Behin azoka bukatuta, ingurua guztiz garbi utzi behar da, paper, kutxa edo janari-hondakinik gabe. Udalak esandako tokietan utzi beharko ditu hondakinak, behar bezala lotuta.

9. Udalak tasa ordaindu duten saltzaileen zerrenda emango die udaltzainei; beraz, udaltzainek eskatzen badiote, saltzailea behartuta dago bere burua identifikatzera.

14. artikulua. Tasak ordaintzea.

Udal tasa hiruhilekoa izango da eta ordaintzeko azken eguna hiruhileko azken laneguna izango da. Behin tasa ordainduta, udal diruzaintzak ordainagiri bat emango dio saltzaileari; saltzaileak eskura izan behar ditu eskaria eta ordainagiria, udaltzainei erakusteko, hala eskatzen badiote.

Udaltzainek ahalmena izango dute postuen kobrantza egiteko, eta berek emango dituzte ordainagiriak.

Artículo 13. Régimen interno.

1. Todo el que llegue fuera del horario de entrada o de salida deberá transportar las mercancías a mano desde el vehículo al puesto o viceversa. Los vehículos después de descargados serán aparcados en los lugares que indiquen los Agentes municipales.

2. Los puestos, serán de 3 o 6 metros lineales de longitud (salvo los ya existentes que serán de la longitud que tuvieran a la fecha) y de un fondo de 2 metros como máximo.

Este Ayuntamiento realizará las oportunas señalizaciones para la delimitación de los puestos adjudicándoles una numeración que no podrá ser alterada por sus titulares. En todo caso, el máximo de puestos a adquirir por una misma persona será de 2.

3. Los puestos que queden vacantes no podrán ser ocupados por otros ambulantes en ningún caso.

4. Todas las mercancías sin distinción, excepto las de mucho peso y volumen, deberán estar expuestas al público en alto, no pudiendo bajo ningún concepto colocarse en el suelo.

5. Se prohíbe extender las mercancías fuera de la demarcación de cada puesto, ni interceptar el paso de las zonas destinadas al público. Asimismo, queda prohibido el depositar cartones o desperdicios en dichas zonas.

6. Los vendedores están obligados a:

a) A garantizar los derechos lingüísticos de sus clientes, tanto en la atención al público como en los carteles indicadores de las mercancías.

b) Acatar las resoluciones de la Autoridad Municipal.

c) Guardar respeto al público.

d) A no realizar operaciones comerciales punibles.

e) A no provocar discusiones, escándalos o disturbios de cualquier índole dentro del recinto ferial.

f) A exhibir en sitio visible el número que corresponda a su autorización.

g) Cualquier otra que se derive de esta u otra Ordenanza Municipal o norma superior específica.

7. Todo aquel que cause algún deterioro en las aceras, paredes, árboles o en cualquier tipo de instalación, deberá de abonar en un plazo máximo de 15 días el importe de la reparación, haciéndose responsable, en caso contrario, de las sanciones a que haya lugar independientemente del inicio del Expediente de Recaudación en vía ejecutiva del importe de reparación de los deterioros.

8. Una vez finalizada la Feria, el sitio quedará perfectamente limpio de papeles, cajas o restos de alimentos. Al efecto, deberá de dejar los restos de basura debidamente sujetos, en los lugares fijados por el Ayuntamiento.

9. El Ayuntamiento facilitará a los Agentes Municipales una relación de los vendedores que hubieran satisfecho la cuota municipal, por lo que ante la exigencia de los Agentes Municipales, todo vendedor quedará obligado a demostrar su identidad.

Artículo 14. Pago de Tasas.

La tasa municipal será trimestral y el periodo máximo de pago será el último día hábil del trimestre. Una vez abonada la tasa, la recaudación Municipal extenderá un resguardo que habrá de ser mostrado a los Agentes Municipales junto con la solicitud siempre y cuando estos lo solicitaren.

Quedan facultados los Agentes Municipales para el cobro de los puestos, en este sentido extenderán los oportunos resguardos de pago.

15. artikulua. Zigorrak.

Ordenantza honen arabera larria ez den edozein arau-hauste arintzat hartuko da.

Arau-hauste larria izango da:

- Baimendutakoak baino metro karratu gehiago okupatzea.
- Baimenaren titularrak ez ustiatzea postua, 9.2 artikuluan aurreikusitako kasuetan izan ezik.
- Aurkeztutako agirietan datuak faltsutu edo manipulatzeari; kasu horretan baimena kendu ahal izango zaio.
- Prezioei buruzko xedapenak ez betetzea.
- Uko egitea udaltzainek eskatutako informazioa emateari.
- Urtebeteko epean hiru arau-hauste arin egitea.

ZIGORRAK

- Arau-hauste arinak 100 euroko isunarekin zigortuko dira.
- Arau-hauste larriak 300 euroko isunarekin zigortuko dira.
- Urtebeteko epean bi arau-hauste larri egiteak baimena kentzea eragingo du (dokumentuak faltsutzearen kasuan izan ezik; kasu horretan automatikoki kenduko zaio baimena).

ZIGORREN MAILAKETA

Nolanahi ere, aplika daitezkeen zigorren mailaketa egiteko, honako hauek hartuko dira kontuan: arau-haustearen garrantzia soziala, egilearen jokaera espekulatiboa, arau-haustearen objektua den eragiketaren zenbateko globala, ateratako etekinaren zenbatekoa, zerbitzuen edota saldutako produktuen izaera, arau-haustearen kokapena azokan, sortutako kalteak, intentzioa edota arau-haustea behin eta berriz egitea.

PROZEDURA ZIGORTZAILEA

Abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean araututakoa.

PRESKRIPZIOA

Arau-hauste eta zigorren preskripzioaren epea bi urtekoa izango da arau-hauste larrientzat eta sei hilabetekoa arau-hauste arinentzat.

AZOKA EREMUAZ APARTEKO ALDIAN BEHINGO SALMENTA IBILTARIA

16. artikulua. Kontzeptua.

Azoka eremuaz aparteko salmenta ibiltaria, ibilgailuen bidez edo kaleko postuen bidez.

Salmenta-mota hau debekatuta geratzen da, espreski, eta honako zigorrak aplikatuko dira:

Udaltzainek ezarritako 100 euroko isuna; kopuru hori momentuan bertan ordaindu ahal izango da eta kasu horretan %10eko deskontua aplikatuko zaio.

Behin isuna ezarrita, saltzaileak saltzen segitzen badu, isuna 300 eurokoa izango da.

17. artikulua. Xedapen arautzaileak.

Araudi honetan ezarritakoari dagokionez, honako arauak aginduko dute: Jarduera Komertzialari buruzko maiatzeko

Artículo 15. Sanciones.

Se considera falta leve toda infracción de la presente Ordenanza que no tenga el carácter de grave.

Se considera falta grave:

- La ocupación de más metros de los autorizados.
- La no explotación personal por el titular de la licencia salvo en lo previsto en el art. 9.2.
- Cualquier falsedad o manipulación que pueda inducir a error en relación con la documentación presentada, pudiendo en este caso revocar la autorización.
- Incumplimiento de las disposiciones sobre precios.
- La negativa o resistencia a suministrar datos o facilitar la obtención de información requerida por los Agentes Municipales.
- Reiteración de tres faltas leves en el plazo de un año.

SANCIONES

- Las faltas leves serán sancionadas con multa de 100 euro.
- Las faltas graves serán sancionadas con multa de 300 euro.
- La reiteración de dos faltas graves en el plazo de un año dará lugar a la revocación de la autorización (salvo el supuesto de los documentos falsos que será automática).

GRADUACIÓN DE LAS SANCIONES

En todo caso, para la graduación de las sanciones aplicables se tendrá en cuenta la trascendencia social de la infracción, el comportamiento especulativo del autor, la cuantía global de la operación objeto de infracción, la cuantía del beneficio obtenido con ella, la naturaleza de los servicios o productos vendidos, la posición en el mercado del infractor, los perjuicios causados y la intencionalidad o reiteración del infractor.

PROCEDIMIENTO SANCIONADOR

El regulado por el Real Decreto 1.398/1993 de 4 de agosto y Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común 30/1992 de 26 de noviembre.

PRESCRIPCIÓN

Los plazos de prescripción de las infracciones y sanciones serán de dos años para las graves y seis meses para las leves.

VENTA AMBULANTE ESPORÁDICA FUERA DE RECINTO FERIAL

Artículo 16. Concepto.

Venta ambulante fuera del recinto ferial, a través de vehículos, o establecimiento de puestos callejeros.

Este tipo de venta queda expresamente prohibido sancionándose su incumplimiento de la siguiente manera:

– Multa expedida por los Agentes Municipales por importe de 100 euro, el importe podrá ser abonado en el acto en cuyo caso se le practicará un descuento del 10% de su importe.

– Si una vez impuesta la multa, el vendedor reincidiera en la venta, la multa será de 300 euro.

Artículo 17. Disposiciones Normativas.

Para lo dispuesto en esta normativa se estará a lo que establece la Ley 7/1994 de mayo de la Actividad Comercial y Ley

7/1994 Legea, Jarduera Komertziala Ordenatzeko maiatzaren 19ko 9/1983 Legea, eta horiek garatzen dituzten gainerako xedapenak eta Udalak emandako ebazpenak.

ERANSKINA

JANARI HIGIENEAREN UDAL ORDENANTZA

18. artikulua. Eranskinaren xedea.

– Ezartzea zein baldintza bete behar dituzten jendearen kontsumorako elikagaiak, aplikagarri diren xedapen orokorretan oinarrituta.

– Zehaztea zein baldintza bete behar dituzten elikagaiak garraiatu, saldu edota kontsumitzeko establezimenduak.

– Finkatzea zein baldintza sanitario exijitu behar zaizkien ondasun eta zerbitzu horien manipulazioan parte hartzen duten pertsonen.

– Orioko Udalak aplikatuko duen araudia osatzea, establezimenduen eta elikagaien higiearen alorreko jarduera zigortzaileari eta jarduera ikuskatzaileari dagokiona. Horretarako, Udalak zainduko du kontsumitzailearen defentsan eragiten duten eta aplikagarriak diren izaera orokorreko arau guztiak behar bezala betetzen direla.

19. artikulua. Aplikazio-eremua.

Ordenantza honen menpe geratuko dira Orioko udalerrian egiten diren eta elikagaien salerosketarekin eta elikagai-zerbitzuak ematearekin zerikusia duten eragiketa guztiak, edozein dela ere elikagaia prestatzen, garraiatzen edo saltzen duen entitate edo pertsonaren helbidea.

Ordenantza honen ondorioetarako, definizio hauek erabiliko dira:

Elikagaia: Edozein substantzia edo produktu, naturala edo transformatutakoa, bere ezaugarriengatik, bere osagaiengatik eta bere prestaketagatik gizakiak normal elikatzeko erabil daitekeena. Osasungarritasun-arauen arabera elikagaia: Edozein elikagai, gizakiek kontsumitzeko egokia dena, elikagaien higieari dagokionez.

ELIKAGAIEN SALMENTA ESTABLEZIMENDU KOMERTZIAL
IRAUNKORRETATIK KANPO

20. artikulua. Ordenantza honen ondorioetarako, definizio hauek erabiliko dira.

Salmenta ibiltaria: Establezimendu komertzial iraunkor batetik kanpo egindakoa, orubeetan edo bide publikoan:

– Esparru komertzial ez-iraunkor eta baimenduan, saltoki batzuk biltzen dituen ordenantza honetan ezarritakoaren arabera.

– Bide publikoan jarritako denda-kamioiak edo postuak: salmenta egiten denean modu ez-iraunkorrean eta toki finkorik gabe; salmenta mota hau baimendu ahal izango da egoera jakinetan: azoka bereziak, festak.

ELIKAGAIEN SALMENTA IBILTARIA

21. artikulua.

Elikagaien salmenta ibiltaria honako baldintzetan egingo da:

– Elikagaiak saltzea debekatuta egongo da, berariazko baimena izan ezean.

– Elikagaien salmenta ibiltaria baimendu ahal izango da honako kasuetan:

9/1983 de 19 de mayo de Ordenación de la Actividad Comercial, y demás disposiciones que la desarrollen, así como a las resoluciones que dicte este Ayuntamiento.

ANEXO

ORDENANZA MUNICIPAL DE HIGIENE ALIMENTARIA

Artículo 18. Objeto de Anexo.

– Fijar las condiciones a que deben ajustarse los productos alimenticios destinados al consumo de la población sobre las bases de las disposiciones generales aplicables.

– Determinar las condiciones que han de reunir los establecimientos dedicados a: Transporte venta o consumo de productos alimenticios.

– Establecer las condiciones Sanitarias exigibles a las personas que intervengan en la manipulación de bienes y servicios.

– Constituir la normativa por la que se registrará el Ayuntamiento de Orio en lo referente a la actividad sancionadora e inspectora en materia de higiene de establecimientos y de productos alimentarios. A tales efectos, el Ayuntamiento verificará la observancia de todas las normas de carácter general que repercutan en la defensa del consumidor, aplicables a dicha normativa.

Artículo 19. Ámbito de aplicación.

Quedarán sometidas a esta Ordenanza las operaciones o transacciones comerciales sobre productos alimenticios y las prestaciones de servicios sobre dichos productos, realizadas en el término Municipal de Orio cualquiera que sea el domicilio de la entidad o persona que los fabrique, transporte o expendan.

A efectos de la presente Ordenanza se entenderá por:

Alimento, Toda sustancia o producto de cualquier naturaleza, natural o transformado, que por sus características, componentes, y preparación pueda ser usado para la normal nutrición humana. Alimento conforme a las normas de salubridad, Cualquier alimento apto para el consumo humano por lo que a la higiene de los productos alimenticios se refiere.

VENTA DE PRODUCTOS ALIMENTICIOS FUERA DE
ESTABLECIMIENTOS COMERCIALES PERMANENTES

Artículo 20. A los efectos de esta Ordenanza se entenderá por.

Venta ambulante: La realizada fuera de un establecimiento comercial permanente, en solares o en la vía pública en:

– Recinto comercial no permanente, autorizado, donde se agrupan varios puntos de venta según lo establecido en la presente ordenanza.

– Camiones-tienda o puestos en la vía pública: cuando la venta se realiza sin las características de permanencia ni localización y que podrá autorizar en circunstancias y condiciones precisas, tales como ferias y fiestas.

VENTA AMBULANTE DE ALIMENTOS

Artículo 21.

La venta ambulante de productos alimenticios se ajustará a las siguientes condiciones:

– Salvo autorización expresa la venta de productos alimenticios estará prohibida.

– La venta ambulante de los productos alimenticios podrá autorizarse en los siguientes supuestos:

– Ostegunetako azokan, baldin eta postuek betetzen badituzte eranskin honen 22. artikuluan ezarritako baldintzak.

– Azokatan, festatan, herriko ekitalditan edo tradizioz jantzia saldu izan den ekitaldi berezietan; baina bakar-bakarrik, egun jakin horietan.

– Jende asko biltzen den ekitaldietan, freskagarriak, ogitar-tekoak eta antzekoak saltzeko, baldin-eta ondo justifikatutako premia badago.

– Saltzeko makina automatikotan, baldin-eta makina horiek eranskin honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

ESTABLEZIMENDUEN BALDINTZA OROKORRAK

22. artikulua.

Jarduera komertzialari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legeak 16.1.a) atalean ezarritakoaz gain, establezimenduek aurkeztu beharko dute agiri bat honako hau adieraziz:

- a) Zein elikagai salduko diren, zehaztuz elikagai-mota eta jatorria.
- b) Elikagaiak hozteko tresna nahiko dituztela.
- c) Zein prozedura eta mekanismo erabiliko dituen titularrak, elikagaiak beti osasungarritasun-arauen arabera salduko direla bermatzeko.

Elikagaiak, behar bezala sailkatuta egoteaz gain, berezita egongo dira, ez nahasteko eta elkarren usain edo zaporerik ez hartzeko eta ez kutsatzeko.

Janariak ez dira inoiz lurraren gainean jarriko eta publikoari erakusten zaizkionak behar bezala babestuko dira.

SALTZEKO MAKINEN BALDINTZA OROKORRAK

23. artikulua.

Jarduera Komertzialari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legearen 29. artikulua ezarritakoaz gain, eskatzaileak idatziz aurkeztu beharko ditu, eta behar bezala justifikatuta, garbiketa, desinfekzio eta mantentze programa eta elikagaien osasungarritasuna bermatzeko gainerako ezaugarriak.

Saltzeko makinak bero-iturrietatik eta kutsadura-fokuetatik urruti instalatuko dira eta udal baimenak zehaztuko du tokia.

24. artikulua. Ikuskaketa.

Eskualdeko elikagaien kontrolerako zerbitzuek ahalmena izango dute betebeharreko arau orokorrak betetzen direla ikuskatzeko eta, aldian behin, beharrezko ikuskapenak egiteko, norbaitek eskatuta ala ofizioz, ordenantza hau ondo betetzen dela bermatzeko.

INTERESATUEN BETEBEHARRAK

25. artikulua.

Pertsona fisiko edo juridikoak behartuta daude, eskumena duten erakundeen edo ikuskatzaileen eskariz: -Instalazio, produktu edo zerbitzuei buruzko informazioa ematera eta ikuskatzaileen lana erraztera.

– En el mercado semanal de los jueves, y siempre que los puestos reúnan las condiciones establecidas en el artículo 22 de este anexo.

– En Ferias, fiestas, acontecimientos populares o tradicionales para productos típicos y únicamente en las fechas correspondientes.

– En las Concentraciones públicas para refrescos, bocadillos y similares y siempre que las necesidades de avituallamiento, debidamente justificadas así lo aconsejen.

– En Maquinas automáticas expendedoras, siempre que dichas maquinas reúnan las condiciones establecidas en este anexo.

CONDICIONES GENERALES DE LOS ESTABLECIMIENTOS

Artículo 22.

Además de lo establecido por la Ley 7/1994 de 27 de mayo, de la actividad comercial, en su artículo 16 punto 1.apartado a), los establecimientos deberán presentar un documento en el que manifiesten:

- a) Alimentos objeto de venta con indicación de tipo clase y origen.
- b) Disponer de elementos de frío suficientes.
- c) Los procedimientos y mecanismos que dispondrá el titular para garantizar en todo momento que los alimentos expuestos para la venta están conforme a las normas de salubridad.

Los productos que se vendan además de estar debidamente clasificados estarán separados entre sí, de forma tal que no se produzcan confusiones entre ellos ni transmisiones de olores, sabores extraños o contaminación.

No se depositará ningún tipo de alimento directamente sobre el suelo, y los expuestos al público estarán debidamente protegidos.

CONDICIONES GENERALES DE LAS MÁQUINAS EXPENDEADORAS

Artículo 23.

Además de lo establecido por la Ley 7/1994 de 27 de mayo, de la actividad comercial, en su artículo 29, el solicitante deberá presentar por escrito y debidamente justificado el programa de limpieza, desinfección y mantenimiento, así como cualquier otra característica necesaria para asegurar la salubridad de los alimentos expedidos.

El lugar de instalación de las maquinas automáticas expendedoras estará alejado de fuentes de calor y de focos de contaminación, debiéndose solicitar autorización municipal para su emplazamiento en un lugar determinado.

Artículo 24. De la Inspección.

Se faculta a los Servicios de Control de Alimentos, Veterinarios de Salud Pública Comarcales para que verifiquen la observancia de todas las normas de observación general, y realicen las inspecciones necesarias, a petición de parte o de oficio para garantizar un adecuado cumplimiento de esta ordenanza en el ámbito de su aplicación.

DE LAS OBLIGACIONES DE LOS INTERESADOS

Artículo 25.

Las personas físicas o jurídicas, estarán obligadas, a requerimiento de los organismos competentes o inspectores a suministrar toda clase de información sobre las instalaciones, productos o servicios, permitiendo la actividad inspectora.

– Ikuskatzen den alderdi zehatzari buruzko agirien kopiak ematera.

– Bitartekoak jartzera ikuskatze-bisitak arazorik gabe egiteko eta erraztasunak ematera horretarako.

– Beharrezko balitz, laginak hartzea baimentzera.

– Ahalmena daukaten agintariak hala erabakiko balute, produktuak konfiskatu eta suntsitzeko baimena ematera.

– Eta ordenantza honetatik eta eragina duten beste arau espezifikoeetatik eratoritzen den beste edozein betebeharrak betetzera.

XEDAPEN IRAGANKORRA

26. artikulua.

Ordenantza hau argitaratu eta hiru hilabeteko epean elikagaiak saltzeko baimenak eta kontzesioak homologatu beharko dira, ordenantzaren ezarritakoaren arabera. Behin epe hori pasata, baimen eta kontzesio horiek iraungitzat joko dira eta homologatzeko eskaria aurkeztu ez duten eta martxan segitzen duten establezimenduak klandestinitzat joko dira.

AZKEN XEDAPENA

Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera sartuko da indarrean ordenantza hau.

Orio, 2015eko maiatzaren 28a.—Beñat Solaberrieta Albizu, alkatea. (5519)

– Facilitar las copias pertinentes de la documentación relacionada con el aspecto concreto de la inspección.

– Poner los medios para que se realicen sin problemas las visitas de inspección, y dar toda clase de facilidades para ellas.

– Permitir que se realice, si fuera necesario, la toma de muestras.

– Permitir el decomiso, y la desnaturalización o destrucción consiguientes, en el caso de que haya decidido por la autoridad competente.

– Y cualquier otra que se derive de esta Ordenanza y otras normas específicas que le afecten.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Artículo 26.

En el plazo de tres meses a partir de la publicación de esta Ordenanza se deberán homologar las Autorizaciones y concesiones para la venta de alimentos a lo en ella establecido. Pasado dicho plazo se consideraran caducadas, declarándose clandestinos aquellos establecimientos que no habiendo presentado solicitud de convalidación, no cesaran en su actividad.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor conforme a lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

Orio, a 28 de mayo de 2015.—El alcalde, Beñat Solaberrieta Albizu. (5519)